

EEBBen aurkako
atentatuak Afrikan

KENYA ETA TANZANIAKO HIRIBURUETAN BI BONBA-AUTO LEHERTU DIRA EEBBETAKO ENBAXADEN AURKA EGINIKO BI ATENTATUTAN

Atentatuen ondorioz 67 hil eta mila zauritu baino gehiago izan dira

Bi bonba-autok eztanda egin zuten atzo Nairobi eta Dar es Salaamen, Kenya eta Tanzaniako hiriburuetan. Atentatua oraindik ez du inork bere gain hartu, nahiz eta atxilotu bat badagoen, baina ia segurua da EEBBetako enbaxaden aurkako ekintzak izan direla. Eztanden ondorioz 67 hil eta mila zauritu baino gehiago izan dira.

Agentziak / Nairobi-Dar es Salaam

NAIROBI eta Dar es Salaamen, Kenya eta Tanzaniako hiriburuetan bi bonba-autok eztanda egin zuten atzo, EEBBetako enbaxaden aurka. Oraindik inork ez du atentatua bere gain hartu, baina Kenyako Poliziak susmagarri bat atxilotu zuen atzo Nairobin. Leukoen arabera, arabiar aurpegierra zuen, eta arabiarrengan ohikoa den janzkera zeraman.

Bi eztanden ondorioz, gutxienez 67 hildako izan ziren, eta milatik gora zauritu. Hildakoen artean gutxienez sei estatu batuarak dira; zaurituen artean, berriz, britainiar batzuk ere badaude. Atzerri Ministerioak argitu duenez, britainiarrak ez daude oso larri, eta leherketa unean inguru hartatik igarotzen ari omen ziren.

Leherketarik garrantzitsuena Nairobikoa izan zen, Kenyako hiriburukoa. Izan ere, Nairobiko leherketaren ondorioz, hiriburu erdiko eraikin bat guztiz suntsituta geratu zen, eta 25 pisutako etxeroratz bati eta Estatu Batuetako enbaxadari kalte larriak sortarazi zizkien. Nina Galbe Gurutze Gorriko bozeramaileak adierazi zuenez, «hondakinak kentzen doazen heinean hildako gehiago agertuko dira». Atzo arratsalderako jandak 40 ziren Nairobin hildako pertsonak.

Kenyako hiriburuko atentatua goizeko 10:35ak aldera gertatu zen (Euskal Herrian 09:35). Pixka bat lehenago Prudence Bushnell -Kenyako EEBBetako enbaxadorea- prentsaurreko bat eskaini zuen. Bonba-autoa lehertu zenean Bushnell eztanda gertatu zen inguruan zegoen, eta aurpegi odolez zuela atera behar izan zuten handik, baina zauri larririk gabe. Nairobiko eztanda gertatu eta hamar minutura beste bonba-auto batek egin zuen eztanda Dar es Salaamen. Kasu horretan ere, EEBBetako enbaxadaren aurkako eraso bat izan zen, eta hamar hildako eta 30 zauritutako baino gehiago utzi zituen. Hego Afrikako komunikabideek oso argazki gogorak erakutsi zituzten atzo, hildako eta zauritu ugariaren irudiekin. Gainera, Hego Afrikako telebista eta irrati kateek adierazi zuten, hildako eta zauritutakak isiltasun handiz ateratzen zizuten gertaeren lekutik.

Agintza eta segurtasun neurriak behar dira • Atentatuaren ondoren laguntza ugari behar da. Nai-



Nairobin, Kenyako hiriburuan, atzo goizean bonba-auto batek eragindako kalteak. SAYYID AZIM / AP



EEBBei eginiko mehatxua susmagarria da

Agentziak / Kairo. - Atzoko atentatuak gertatu baino egun batzuk lehenago, aste honetan bertan hain zuzen ere, Jihad Islamiarra taldeak Estatu Batuek mehatxatu zituen. Jihadiek EEBBetako Gobernuari leporatu zion taldeko hiru kide atxilotu eta Egiptora estraditatu izana. Al Hayat egunkari arabiarrek herenegun kaleratutako agiri batean honako hau zioen Jihad taldeak: «EEBBetako Gobernuak Egiptoko Gobernuaren laguntzarekin gure hiru kide atxilotu zituen Ekialde Europako zenbait herrialdetan». Agiria mehatxu batekin amaitzen zen, eta honela zioen: «Estatu batuarrei esan nahi diegu beraien mezua jaso dugula eta erantzun bat prestatzen ari garela». X

robiko ospitaleak, esaterako, odola, medikuak eta ospitalerako materiala behar dituela esan zuen atzo. Estatu Batuek, berriz, osasun arloko materiala bidaliko

dute, bai Kenyara eta baita Tanzaniara ere. Horretaz gain, FBIko aditu talde bat ere bidaliko du, atzoko atentatuak azter ditzan. Gainera, Afrikan dituen enbaxa-

da guztietan segurtasun neurriak sendotuko dituela adierazi du EEBBetako Gobernuak. Hala adierazi zuen behintzat Pentagonoak.